

Etxean kontu-kantari 7

Marigorri

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri Elkarte.

Basora buelta bat ematera joan eta ea nork aurkitzen duen lehenengo marigorringo bat? Eguraldia iragartzeko marigorringoari putz egin abestia kantatuz. Marigorringoa alde batera erortzen bada euria arituko du, beste aldera eroriez gero, ordea, eguzkia...

Marigorri
Xurigorri,
Fil, fil, fil.
Bihar euri ala eguzki?
Fil, fil, fil.

Aldi berean, jolas bat proposatuko dizuegu kantatxo honekin batera aritzeko: lurrean eseri borobil bat osatuz. Bulea egiten duenak zapi txiki bat erabiliko du eskuan eta kantari joango da beste jokalaria guztien atzean. Halako batean, berak nahi duenaren atzean utziko du bere zapia erortzen eta hura konturatzen denean bulea harrapatzen saiatuko da.

Oihana bazterrean

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri Elkarte.

Paseoan zabilzatela abesti hau kantatu dezakezue lagun-giroan edo familian. Nahi izanez gero abesbatza txiki bat ere egin daiteke...

Oihana bazterrean
Kuku bat kantari
eta beste aldetik
ontzak erantzunik.
Ku-ku, ku-ku, ku-ku, ku-ku...

Galtzagorriak

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri Elkarte.

Ezagutu nahi al dituzue Galtzagorriak? Ipuina irakurri eta gozatu!